
NAFARROAREN
EGUNA
Apirilak 26 BAIGORRI
2026
ARGIA
berria
baigorri
IRRATIAK

Aurten ere Basaizea elkarteak Kulturaldi berri bat prestatu du. Urte guziz Baigorriko eskualdean eta zabalago ere, jendea hitzordu horren beha da, Nafarroaren Egunarekin bukatzen dena. Kulturaldia (garaian Kultur Astea), 1979. urtean sortu zen eta oraino bizi da.

Baigorriko eskualdean orotariko euskarazko ekitaldien eskaintzea du helburutzat: ikusgarri, antzerki, kantaldi, eztabaida, gogoeta, etab. Eskas bati erantzuteko sortu zen, garaian euskarazko sorkuntzak eta emanaldiak arrunt murritzak baitziren.

Gaur egun, eskaintza aberatsagoa bada ere, ez dugu begi bistatik galtzen euskaraz bizi nahi badugu horrelako ekitaldiak beharrezkoak direla eta oraino lan handia gelditzen dela euskal kulturak leku ttipiegia baitu gure lurraldean.

Beraz, gure maneran eta gure ahal xumeekin entseatzen gara barnekaldean kultura biziarazten eta bazterren inarrosten, euskaraz.

BASAIZEA
Kultur Batasuna


CLAAS
MBB-ADOUR
TRACTEURS
MACHINES AGRICOLES
BAIGORRI
09 85 60 61



Bar - Tapas - Restaurant
Asteburua
Ortzaize / Ossès

ortzaize
Librairie Café
MENTA
Liburutegi Kafea
ortzaizea

MENTA
FERME AUBERGE
RESTAURANT / ALDUDE
www.ferme-auberge-menta.com



GOXOKI COIFFURE
HOMME&FEMME
06-32-52-39-23
2060 bankako errepidea
Baigorri

# ESTATU ZAPALTZAILEEN AITZINEAN, HERRI ERRESISTENTZIA!

1979an lehen Nafarroaren Eguna ospatu zenetik, gauza anitz aldatu dira. Euskal kultura bera ere aldatu da eta etengabeko aldaketan ari da. Euskal kultura osatzen duen herri erresistentzia nahiz eta denboran zehar aldatu, ez da sekula hil eta bizirik dirau Nafarroaren Egun orotan.

Bizirik iraunen du kontziente baldin bagira bi estatu zapaltzaileen artean bizi girela. Horren ondorio zuzena dira egunerokoan ukaiten ditugun mehatxu eta erasoak. Euskaldunon kontrako oldarraldi judiziala martxan da, epaitegietan euskaraz mintzatzeko eskubidea ukatua zaigu, eta euskal kultura sustatzeko ahal geroz eta gutiago ditugu.

Eskuin muturrak dakartzan ideiak eta jarrerak gero eta konplexu gutiagorekin adieraziak dira espazio publikoan. Gero eta eraso zuzen gehiago bizitzen ari gira gure etxean ere elkarbizitza eta pertsona guzien onarpena aldarrikatzen duen LGTBKIA+ bandera urratu izateraino Baigorriko plazan, edo berrikiago Hazparneko ihauterien karietara eskuin muturrak eraman duen polemika piztu eta elikatzeraino.

Horren aitzinean, euskara eta euskal kultura biziaraztea etengabeko lana da, erresistentzia fronte bat. Defendatzen ditugun baloreak erresistentzia baten parte dira, eta Nafarroaren Egunak horiek sustatzen dituen heinean, datorren garai ilunari erantzun bat emateko eta haren kontra borrokatzeko deia zabaltzen dugu. Argi dugu gure kultura beti borroka bide bat izanen dela, eta Nafarroaren Egunean batzen den komunitateak, hots, herri hau eraiki nahi dugun guziek, elkarrekin aurre egin behar diogula datorrenari, erresistentzia sare bat sortuz.

Gure sarea sortzeaz gain, demokraziaren aitzakiapean gerla inperialistak martxan eman dira eta horren harira munduko bertze herri zapalduei elkartasuna adierazi nahi diegu. Hemendik, bertzeak bertze, Palestinak bizitzen duen kolonizazioa eta zapalkuntza salatu nahi dugu. Estatu zapaltzaileen aitzinean, munduko herri minorizatuak elkarrekin aritzeko guneak sor ditzagun.

Aldarrikapen eta nahi guzi hauek kontutan harturik, aurten ere Nafarroaren Eguna antolatu dugu, apirilaren 26an, hain zuzen. Aitzinetik Kulturaldia indartsu jinen da, zazpi ekitaldi barnebilduz.

**GORA NAFARROAREN EGUNA!**
**GORA EUSKAL HERRIA!**

# IZEBA TXIRRITA
antzezlana

## Apirilaren 4a

BIL ETXEA . BAIGORRI — 20:00

PREZIO LIBREA . 7 URTETIK GOITI



baigorri herriko etxea mairie — GEURETIK SORTUAK

Antzezlana 1936ko altxamendu frankistatik abiatutako bidaia da, memoria kolektiborako ariketa bat: mudantza baten erdian, zoriak nerabe bi eta euren izeba elkartuko ditu familiaren etxe zaharrean. Kutxaz kutxa, izebaren bizitzarekin lotutako sekretuz betetako altxorrak eta pasadizoak aurkituko dituzte. Nerabeek pixkanaka ikusiko dute iraganeko istorio horiek zein bizirik dauden oraindik. Erribera kulturgunean sortutako antzezlana.

Zuzendaritza artistikoa: **Olatz Gorrotxategi** - Gidoilaria: **Xabi Paya**
Antzerkilariak: **Miren Gojenola, Irene Hernando, Gontzal Royuela**

# TTUNTTUNEROEN GIZARTEA
liburuaren aurkezpen musikatua
Xabier Itzaina (ikerlaria) eta Xabi Etxeberri (soinularia)

## Apirilaren 10a

URDOZEKO KAPERA — 19:30

URRIRIK . ONDOTIK PINTXO ETA TRAGO



Baigorri, Ortzaize, Garazi, Aldude (BOGA) irakurle taldeak antolaturik.

EUSKAL KULTUR ERAKUNDEA — INSTITUT CULTUREL BASQUE

## IPAR EUSKAL HERRIKO HERRI SOINUAREN HISTORIO SOZIAL BAT.

Ohiturek badute istorio bat. Ohitura dantzatuak beti garai bakoitzari egokitu dira, Euskal Herrian bertzetan bezala. Hitzaldi honetan Lapurdi-Baxenabarreko dantzarako soinuaren bilakaera dugu behatuko. Nor ziren soinulariak? Zer eta nola jotzen zuten? Zeren karietara? Nola ikusiak ziren orduko gizartean? Dantzaren araudiek zer erranahi zuten? Baionan barna pasatzen ziren printzeen laguntzeko morisca-tik Urdozeko toberetaraino, behatuko dugu soinularien betebeharrak zoin ziren eta nola aldatuz joan diren mendeetan zehar. Adibide musikal zonbait emanez bidenabar.

# NOR NAIZEN BANEKI

antzezlana . Axut! eta Artedrama

## Apirilaren 12a

PLAZA XOKO . BAIGORRI 18:00

10€ . 8€ Basaizeako kideentzat
basaizea.com eta Oronozenian
ONDOTIK TALO ETA TRAGO




NOR NAIÇEN BANEQUI,
GRAÇIA NUQUE ACHEQUI
ILARGIAC SOILIC DAQUI NAIÇELA EQUI.

Antzezlanak antzoki baten indusketa arkeologiko bat kontatzen du. Arkeologoek eta adituek antzokiaren historia sekretua aztertzen dute, geruzaz geruza, erromatarren garaitik gaur egunera. Bi mila urtetan metatu diren gudu ezagunak, gai ez oso ezagunak eta trauma lurperatuak argitara emanez. Ikuslea Inkisizioaren, Frantziako Iraultzaren, Karlistaden eta 1936ko gerlaren ikuspegietan barna ibiliko da, familia, jabetza, mugak, herentzia genetikoa eta indarkeria koloniala bezalako gaiak jorratuz. Lurraren indusketaz gain, pertsonaiak ere barne-bilaketa batean ibiliko dira, gauzatu beharreko erabaki garrantzitsuen eta beren kontraesanen artean harrapaturik.

Idazleak: **Harkaitz Cano, Ximun Fuchs**
Zuzendaria: **Ximun Fuchs**
Aktoreak: **Ramon Agirre, Garoa Bugallo, Maialen Diaz, Aline Etxeberri, Manex Fuchs, Idoia Tapia, Oier Zuñiga**
Teknika: **Acrónica**



# KNEECAP

filmaren proiekzioa (euskaraz azpitituluatua)

Apirilaren 17a

BIL ETXEA . BAIGORRI 19:30

URRIRIK

Irlandan 80.000 irlandar hiztun daude, 6.000 Ipar Irlandan bizi dira eta horietako hiruk dena hankaz gora jarriko dute Kneecap izeneko rap hirukotea osatzen dutenean. Anarkikoak, basatiak eta edozertarako prest daudenak ama-hizkuntza salbatzeko.

Kaleko musika garaikidea, drogak, umorea, gaeliko eta Irlandako nortasuna dario filmari. IRAren osteko belaunaldikoak dira, bere gaitz eta aldekotasun guztiekin. West Belfasteko istorio bat, XXI. mendean kokatua.




Zuzendaria, gidoilaria: **Rich Peppiat**
Kneecap-eko partaideak, beren burua antzezten: **Liam Óg Ó Hannaidh (Mo Chara), Naoise Ó Cairealláin (Móglaí Bap), DJ Ó Dochartaigh (DJ Próvaí)**

# ALTXALILI

Apirilaren 18a

ALFAROENIA . ALDUDE 21:00

Sarrerak internetez salgai basaizea.com webgunean




Altxalili kolektiboa Atharratzeko Bekat'Uros egunean sortu zen 2022an. Baserri gunean sortu edota bizi diren queer pertsonek osatzen dute. Drag performantziatik, genero identitatea, sexualitatea, harremantzea, botere harremana eta beste gai anitz jorratzen dituen kabaretea da Altxalili Show. Bazterrak inarrosiz, Euskal Herrian LGTBKIA+ komunitatea ikusgarriagoa izatea da bere xedea.

# MUSIKALDIA
Batuz korua + Emakumende

Apirilaren 25a

ELIZA . BAIGORRI 20:00

10€ . urririk 15 urte pekoentzat
basaizea.com webgunean



## BATUZ : MUGAZ GAINDIKO BI KORUEN ARTEKO TOPAKETA

11 eta 20 urte arteko 120 kantariek oholtza partekatuko dute.
Oreretako Zaria Koru Eskola eta Larzabaleko Manex Erdozaintzi Etxart Kolegioko koruen arteko topaketa. 2015eko udazkenean abiatu zen Zaria Koru Eskola elkartearen ibilbidea. Egitasmo honek hezkuntza, kultura eta euskara sustatzen ditu. Manex Erdozaintzi Etxart kolegioko koruarekin batera, Gipuzkoa eta Baxenabarreko gazteen arteko lotura kulturalak eta pertsonalak indartzen ditu baita elkarrekin abestearen onurak zabaltzen ere.

## EMAKUMENDE

Tradizioa eta sorkuntza nahastuz, Emakumende (emakume eta mende) izenaz bataiatu musika tradizionalen kontzertu honek hamar musikari biltzen ditu Iparraldeko Orkestran. XIX. mende bukaeratik gaur egun arte bildutako euskal artxiboetatik ateraz, proiektu honek emakumeak, ahotsak eta praktika instrumentala laidoztatzen ditu.

# XAK BAKARKA
kontzertua

Apirilaren 30a

ALFAROENIA . ALDUDE 20:00

URRIRIK



Xak, Paxkal Irigoien musikari polifazetikoaren proiektu berria da, popa eta folka jorratzen dituena. Egiten duen musika iluna eta hipnotikoa izan daiteke, alaia edo argitsuagoa bertzetan. Tresna ugari erabiltzen ditu (ahotsa, kitarra, saxoa, bibolina, pianoa, sintetizadoreak...), entzulea geruza ezberdinetan harrapatuz.

# IPAR EUSKAL HERRIKO HITZA




**24 orriko magazina astero**

Gaiak barnatzeko toki gehiago
Irudi gehiago
Kazetaritza gehiago
euskara gehiago...

Interneten, *iparraldekohitza.eus* -en eta sare sozialetan atzematen gaituzu.

Euskara zure eskuetan da, **hartu HITZA!**



**Harpidetza**

**40€**

**urtean**

Egin harpidetza:
*iparraldekohitza.eus/harpidetza*



# NAFARROAREN EGUNA 2026
## Apirilak 26 BAIGORRI

## GAINEKO PLAZA

9:00
Askari alaitua ikastolan

9:00
Merkatua txalapartariekin

11:00
Desfilea behereko plazatik
Irisarriko dantza taldea, Agoitzeko dantza taldea, makilariak, basandereak, basaldunak, Nafarroako eta Baigorriko ziganteak, Kilimon

11:30
Ekitaldia elizako plazan

12:00
BAS'HITZA
Jota eta irrintzina

13:00
Larrain dantza eta jauziak

## HAURREN ETA FAMILIEN XOKOA

14:00-19:00
Puzgarriak
Aurpegi tindaketa

15:00
Bertso saio musikatua
Maddi Ane Txoperena, Onintza Enbeita eta Sarai Robles.
Musikaria: Ainhoa Elizondo.
Gai emaileak : Amaia Castorene eta Xalbat Alzugarai

17:30
Oreka zirkoa

## BEHEREKO PLAZA

12:00
Xibalet txaranga

14:00
Darauta txaranga

14:00
Bazkaria . Kuxkuxtu txarangak animaturik

16:00
Arrano band

17:00
Dantza ikusgarria

17:30
Kiki Bortxatxo

18:00
Elektrotxorongo

19:45
Goxua'n salsa

22:00
Puntu ta koma

23:30
Estelle D

Elektrika
Électricité
Aire Egokitua
Climatisation

**ARGI EGIN**

Tél/Fax : 05 59 37 47 25

Bero ponpa
Pompe à chaleur
Eguzkikoak
Solaire

Maçonnerie - Carrelage

**ARGINTZA**

«Sagara» - BAIGORRI 05 59 37 46 96

Baig Optique

FLORENCE ETCHENIQUE
Bankako bidea - Baigorri
05 59 49 01 46

**ERREGUINA** **

HOTEL RESTAURANT
BANKA
WWW. ERREGUINA.COM



Eskualduna
HÔTEL RESTAURANT
Chez Katina ★★

Saint-Martin-d'Arrossa - Pays Basque




**E.Leclerc**
EXPRESS OSSES
05 59 49 21 24 - Ortzaize

GARBIKETAK
KATTAKLIN
kattaklin@hotmail.com
0660469829

GARAGE IREY
AGENT RENAULT DACIA
0559374771 - BAIGORRI

ITHURRALDE
Artisan

BOULANGER okina PÂTISSIER gozotegia
64780 OSSES / ORTZAIZE
Tél : 05 59 37 95 75

MAKUR
MÉTAL

ARNABAR
Eleveurs de Canards au Pays Basque
www.arnabar-foie-gras.com

ARGINTZA
MAÇONNERIE
CONSTRUCTION - RÉNOVATION
06 12 48 19 23

GARBIKETAK
KATTAKLIN
kattaklin@hotmail.com
0660469829

TRUITE DE BANKA
MICHEL GOICOECHEA

zurlan

ZURGINTZA . MAHAXTRUGINTZA . ZUREZKO EGITURAK
CHARPENTE . MENUISERIE . OSSATURE BOIS

SCOP ZURLAN . 64430 BAIGORRI . 05 59 37 46 75

VENTA
CHEZ PEIO
IRIGOIENEKO
BAR - RESTAURANT - TABAC - MAGASIN

0034 948 45 32 14 - Col d'Ispeguy 31714 Erratzu

# Goicoechea

POTIER - CÉRAMISTE

LURREZ • ESKUZ • MAITEZ • LANDUZ

Village d'artisans - Rd 918 - 64780 Ossès - Ortzaize

**www.poterie-goicoechea.com**




LA CAVE

D'IROULEGUY

**Mahastizain Kooperatzaileak**

Hôtel** Restaurant Manexenea
05 59 37 41 68
hotel-manaxenea@orange.fr
www.manexenea.com

HARRIBELTZ
Daniel & Julien MOCHO

Hatsa Sport
Ossès | Ortzaize
www.hatsa-sport.com

AMAMA
JOANES HARITSCHELHAR

DEKRA
CONTROLE AUTO IROULEGUY
CONTROLE PAR : Patrick IREY
ZONE ARTISANALE D'IROULEGUY
05 59 49 16 59

DOMAINE ORONOZIA
ATERPETXEA | GÎTE DE GROUPES
64430 BAIGORRI 05 59 37 42 03
www.domaine-oronozia.com

SALDUMBIDE Albert
Zurgina
MENUISERIES Bois - Alu - PVC
CUISINES Agencement Intérieur
06 78 75 73 65
ZAC d'Irouleguy 64220 IROULEGUY
Fabrication sur mesure

UTIZIA
SÉBASTIEN CLAUZEL & CÉCILE SABBAH
APPELLATION IROULEGUY CONTRÔLÉE

IRIBARNEA
BEHI GASNA
BEHI ESNE
Ferme Iribarnea 64430 Baigorri

AGERRIA
Foie Gras - Conserves
Vin d'Irouleguy

ELCENIA

Belaun
ALDUDEKO ETXE EKOIZPENAK
belaun-aldude.com 05.59.37.89.40

FERME Belarrea ETXALDEA
BAIGORRI
www.porc-manex.com

Tarterie TXANOGORRITXO
Rue de la Mairie
64430 Saint-Étienne-de-Baïgorry

BAR BRASSERIE
TRINQUET
HERRIARENA
230, Irulegiko Errepidea
64430 BAIGORRI
05 47 71 35 38
trinquetbaigorri@gmail.com

Chocolaterie
Laia
Txokolategia

ALFAROENEA
Bar-Brasserie
Ostatu-Jatetxea
& Jokoberri
05.59.37.58.61>>>ALDUDE
Asteazkenetan hetsia Fermé le mercredi

Garage SEMERENA
PEUGEOT
BAIGORRI
05 59 37 42 69

DOMAINE ILARRIA
05 59 37 23 38

GARAGE OÇAFRAIN
64220 IROULEGUY
CITROËN
JOHN DEERE

Joaieria Atelierra
Baigorri
basa-bijouterie.com


FERME
OHeTA
BEHI GASNA
SYLVIE ET JEAN MICHEL BRUST
64780 ARROSA
05 59 37 74 58


Pizza
Pausa
BAIGORRI
05 59 37 25 44
18H-21H


Les Mousquetaires
Intermarché
contact
ST ETIENNE DE BAÏGORRY
Station-service 24h/24 • Drive
• Laverie automatique 24h/24


05 59 37 93 68
ameztia@orange.fr
64430 ST ETIENNE DE BAIGORRY
GERMETA - EUSKAL HERRIA
IROULEGUY
APPELLATION IROULEGUY CONTROLEE
DOMAINE
AMEZTIA
BISITAK
JASTAKETAK
SALMENTA


Sanitaire | Chauffage | Zinguerie
CURUTCHARRY
BAIGORRI 06 75 57 49 58


FRANTSES ITZULPENA
antton.banka@wanadoo.fr
06 85 38 45 33
TRADUCTION BASQUE


KAIKU
BORDA
ETXE EKOIZPENAK
Magasin de producteurs fermiers
ETXE EKOIZPENAK
ORTZAIZE


IROULEGUY
Arretxea
Famille Riouspeyrous Familia
www.domaine-arretxea.com


Mamiño


Etxean egina
Savonnerie
Artisanale
Baigorri
05.59.37.93.42
www.etxeanegina.com


SPAR


bix
tori
tokiko
historian
ibili
Bixente Hirigarai Labéguerie
HIZLARI GIDARI
ANIMATZAILE
BIXTORI.EUS


SALTEGIA
Maite GARATEA
64430 ALDUDE
05 59 37 56 78

# BAIGORRIN ERE ERASORIK EZ !

Nafarroaren Eguna denontzat leku segurua izatea nahi dugu. Ez dugu eraso mota bakar bat ere onartuko.
Behar diren baliabideak ezarriak izanen dira horien saihesteko eta zerbait gertatzen balitz, berehalako neurriak hartuak izanen dira erasoari erantzuteko.
Ez dugu onartuko eraso batek egun hau zikintzea eta iluntzea.

Guzion artean bestagune askea eraiki dezagun!

## ERASORIK EZ ERANTZUNIK GABE!

BASAIZEA
Kultur Batasuna

Lurrera ez bota . Inprimaketa : Bixoko . Kreazioa : lantegia